

Salto del Negron «legedia bete» egiten dela dio Antoni Asuncione

Nazioarteko batzorde bat Senideak eta parlamentariekin bilduko da gaur

Giza Eskubideen Batzordeko sei parlamentari bildu ziren atzo Antoni Asuncioneekin. Bileran «legedia eta gehiago» betetzen dela esan arren, Jone Goirizelaia jakin erazi zuen Asuncione aitortu zuela presoekin kontrako neurrien atzean helburu eta zio politikoak daudela.

BILBO

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen erabakiari jarraiki, sei parlamentari bildu ziren Antonio Asuncioneekin Salto del Negroko espetxeko egoeraz informazioa biltzeko. Jose Antonio Rubalkaba batzordeko lehendakari jeltzaleak jakin erazi zuenez, bileran ez ziren aztertu presoekin eskariak ez parlamentari eta senideek bisitak egiteko izandako oztopoen zioa ere. Rubalkabak ez zuen baieztatu ez ezeztatu giza eskubideak apurzen direnents Salto del Negro.

Gasteizko Legebiltzarreko batzordea osteguna baino lehen bilduko da egoeraren irakurketa «ahal bada bateratua» egiteko.

Asuncionen bidez ezagutu zen zen atzo Pedro Guridi presoak apirilaren 23an hasi zuen gose greba eta maiatzaren 20tik aurrera zeraman egarri greba utzi diutela. Ez dira ezagutzen preso honek greba uzteko izan dituen arrazoiak.

Giza Eskubideen Batzordeko sei parlamentari bildu ziren atzo Antoni Asuncioneekin. Bileran «legedia eta gehiago» betetzen dela esan arren, Jone Goirizelaia jakin erazi zuen Asuncione aitortu zuela presoekin kontrako neurrien atzean helburu eta zio politikoak daudela.

ordezkaritzaren partetik Rubalkabaz gain Ignacio Latierro (PSOE), Jone Goirizelaia (HB), Juan Daniel Barandiaran (EA), Carmelo Barrio (PP), Kepa Aulestia (EUE) eta Xabier Markiegi (EE) ere egon ziren. Asuncione presoekin osasunari buruzko datuak eta erreibindikazioak biltzen dituen txostena eman zion Gasteizko batzordeari. Agiri horretan azaltzen denez presoekin eskariak lirateke, besteak beste, aurrez aurreko bisitak, lagunekin komunikatzeko eskubidea, presoak sail berean biltzea, zelda aldaketa etengabeak amaitzea, eta nahi beste gutun idatzi eta jasotzeko eskubidea. Espetxe Zuzendaritza Nagusiko arduradunak adierazitakoaren arabera, eskari hauek «espetxe araudiaren kontrakoak dira».

Espetxe Zuzendaritza Nagusiko arduradunak baieztatu zuen «eguneko 24 ordutan zaintzen dute presoekin osasuna», eta atzerazineko egoerara iristeko aukerarik ez zegoela.

NAZIOARTEKO BATZORDEA EUSKADIN

Salto del Negro, eta orokorrean euskal presoekin egoera ezagutzeko datorren nazioarteko ikerketa batzordeak zenbait bilera izango ditu gaur Euskal Herriko erakunde eta instituzioekin. Batzordea osatzen dute Jean Pierre Barrois, Pariseko unibertsitateko irakaslea, Moises Molero diputatua eta Venezuelako Legebiltzarreko lehendakari ohia, Marie Villalba abokatu belgikarra eta Uwe



Antoni Asuncion, Espetxeetako zuzendari nagusia.

EFE

Trieschmman, osagile alemana.

Batzordea gaur goizean Senideak eta Amnistiaren aldeko Batzordeekin bilduko da, eta arratsaldean Juan San Martin Arartekoarekin eta Gasteizko Giza Eskubideen Aldeko Batzordeko ordezkariarekin.

Bihar Kanariar irletarantz abiatuko dira Salto del Negroko

presoen egoera zuzenean ezagutzeko. Bertan zuzendaria eta presoekin elkarriketatzeko asmoa du ahal izatekotan. Elkarriketa horietarako eskaerak egin diren arren ez dute espetxeko zuzendaritzaren konfirmaziorik jaso. Arratsaldean ordezkariak Madrilerako helduko da Alvaro Gil Robles Arartekoaren egotekotan.

Azkarraga: «Presoekin ezin dituzte gizaki gisa dagozkien eskubideak galdu»

GASTEIZ

Salto del Negroko gartzelan gose eta egarri greban dauden presoekin egoera larria dela eta, «presoen askatasuna galdu ahal dute epaileek jarritako zigorraren arabera, baina inoiz ere gizaki gisa dagozkien eskubideak», esan du Joseba Azkarraga Eako parlamentariak.

«Sistema demokratiko batetik hitzegi nahi badugu, Salto del Negroko espetxean dauden delituak larriak izan arren, inork ezin dio epaileek jarritako zigorrari giza eskubideen kontra doan beste bat erantsi, eta are gutxiago administrazio zentraletik egiten baldin badira eta euskal alderdi baten ezkutuko laguntzarekin egiten baldin bada».

ABBek Bilboko manifestazioarekin bat egiteko eskatu diote Azkarragari

BILBO

Salto del Negroko euskal presoekin gose grebak «legaltasuna eta giza eskubideak defendatzeko bide instituzionalik» ez dagoela erakutsi du, Mikel Kortak, Amnistiaren Aldeko Batzordeetako eledunak, atzo adierazi zuenez. Egunotan buruzagi politikoek izan duten jarrera horren erakusle dela uste du. «Horregatik —azaldu zuen— euskal gizartearen gehiengoak, bakoitzaren ideologiaren gainetik, Espainiako Gobernuak giza eskubideak suntsitzearen kontrako delat erakustea beharrezkoa da».

EAJrekin bildu ondoren HBk ez du uste aurrekontuetan akordiorik izango denik

DONOSTIA

1992ko Gipuzkoako aurrekontuei aurkeztutako osoarekiko emendakinarik eutsiko dio Herri Batasunak Batzar Nagusietako biharko plenoan, EAJ eta PSOE Gobernuak kideen aldetik «benetako jarrera aldaketarik ez badago». Santi Val, HBko batzarkidea ezkor agertu zen atzo Diputazioarekin akordioa lortzeko aukeraz. EAJ eta PSOE «harrokeriaz» jokatu dutela eta gutxiengoan daudela onartzeko gai ez direla izan esan zuen.

Iñaki Txueka Diputazioko bozeramaleak EA eta EUErekin akordioa lortzeko aukera baztertu dutela eta HBrekin aurrekontuaren onarpena negoziatzeko prest daudela azaldu zuen. Gobernu taldeak «idatziz» beste negoziazio proposamen «zehatz» bat egin diola HBri esan zuen

ohizko prentsaurrekoan, baina zuzendu egin zuen arratsaldean baieztapen hori. Joan den asteartean EAJko ordezkariak batekin (Joseba Egibar buru zuela) bildu ziren HBko batzarkideak, baina aurretik eginda zegoen proposamen bera zen oinarrian egin zena, Diputazioko bozeramaleak gero azaldu zuenez.

Santi Valek bilera hori egin zela baietsi zuen, baina ukatu HBk proposamen berririk jaso duenik. «Bilera horretan HBk aurrekontuen desblokeorako elkarriketa bideak zabaltzeko borondatea erakutsi zuen arren, EAJk eta PSOEk oposizioak nahi bezala aurrekontu proiektua funtsean aldatzeari uko egiten diote» azaldu zuen HBko batzarkideak. Valen ustez, aurrekontuari aldaketa handirik egin gabe HBrekin akordioa lortuko zutela pentsatu izan du EAJk.

1991-KOAK LUZATU BEHAR

Batzar Nagusietako biharko plenoak aurrekontu proiektua atzera botatzeko oposizioko EA-EUE eta HBk hartu zuten erabakia berretsi beharko du. Aurrekontuak bigarren gobernuko taldera itzulita, honek ez luke hirugarren bat egingo eta 1991ko luzatu beharko lirateke.

Diru banaketa egiteko plangintza bat diseinatu behar dela uste du HBk eta gai konkretuetan EA eta EUErekin proposamen zehatzak bideratzeko prest agertu da. Txuekak HBk zentsura mozioa babesteko aukera baztertu zuen arren, Valek esan zuen ez dutela hori baztertzeko: «Gipuzkoarren eta erakundeek gobernuaren politikaren kalteak sufri ez ditzaten eman beharko ditugu urratsak aztertuko ditugu. Bide horretan dena da posible».

EAJ-HB elkarriketen bigarren bilera ostiralean izango da

P. U. / DONOSTIA

EAJ eta HBren arteko elkarriketen bigarren bilera ostiralean izango da, bi aldeetako iturriek egiaztatu dutenez. Bigarren bilera horretan, batetik, elkarriketen aspektu metodologikoak zehaztuko dituzte eta, bestetik, elkarriketen helburuak zehatz-mehatz finkatu dituzte, eta adostasuna badago, aditzera emango dituzte. Seguru asko, aurreko bileran parte hartu zuten solaskideak joango dira, hau da, EAJko Joseba Egibar, Juan Maria Ollora eta Gorka Agirre eta HBko Iñigo Iruin, Rufi Etxeberria eta Jon Idigoras. Bileran, lehenbizikoa bezala, leku ezezagun batean egingo da.

Elkarriketa hauek aipagai

izan zituen Xabier Arzalluzek TVEko Telenorte saioari eskainitako solasean. Bere ustez, ETAren atentatuak ez dute zergatik eten behar elkarriketa prozesu hau. Dena dela, atentatuak sor lezaketan «giro soziala» dela medio elkarriketak bertan behera galdi litezke, Arzalluzek adierazi zuenez.

Bestalde, Patxi Zabaleta HBko parlamentari nafarrak asteartean Bilbon eman zuen hitzaldian aipamen labur bat izan zuen EAJ eta HBren arteko elkarriketei buruz. Horrelako elkarriketak izatea «notizia ona da, nahiz eta ados jartzen ez diren», Patxi Zabaletak esan zuenez. Bere ustez, «izugarria» da indar eta sektore sozialen arteko inkomunikazioa.